

Guztiok betetzen ditugu arauak!

Urruneko herrixka txiki batean haurtzaindegi batera joaten ziren haur oso berezi talde bat bizi zen. Liam, Noa, Gala, Aina, Mariona, Nil, Emma eta Bruna ziren haien izenak. Lau eta bost urte bitartekoak ziren guztiak, eta maite zuten elkarrekin aurkitzea, esperimentatzea eta jolastea.

Haien gela espazio lasai eta atsegina zen, material naturalez betetako apal baxuak, irakurketa txokoak eta isiltasunean lan egiteko mahai txikiak zituena.

Goiz batean, Clara irakasleak zirkulu batean bildu eta ahots leunez gogorarazi zien: “Gogora ditzagun hobeto moldatzeko gure arauak:

1. Entzun arretaz norbait hitz egiten ari denean.
2. Txukundu materialak erabiltzen amaitutakoan.
3. Garrantzitsua da hitz egiteko baimena eskatzea.
4. Izan errespetuzkoak eta lagundu elkarri ahal duzuen guztietan”.

“Arau hauek betetzen ditugunean”, jarraitu zuen Clara irakasleak, “hobeto ikasten dugu eta zoriontsu sentitzen gara”.

Baina denbora baten buruan, Noa, istorio bat kontatzeko gogoz, bere txanda itxaron gabe hitz egiten ari zen. Liamek, zurezko blokeekin

jolasean, irauli egin zituen eta jasotzea ahaztu zitzaion. Gala eta Aina arkatz arrosa baten inguruan eztabaidan ari ziren, eta Emma eta Bruna hain ozen barre egiten ari ziren, ezen zaila baitzen entzutea.

Marionak, beti oso lasai behatzen zuenak, eskua altxatu eta esan zuen: “Lagunok! Arauak errespetatzen ez baditugu, ezin izango dugu elkar ulertu. Zer iruditzen zaizue elkarrekin hobeto egitea?”

Denek elkarri begiratu eta irribarre batekin baietz egin zuten buruarekin. Nilek eskua altxatu eta proposatu zuen: “Arkatz arrosa partekatu eta Liami blokeak jasotzen lagun diezaiokegu”.

Eta hala egin zuten: Noak pazientziaz itxaron zuen bere txanda hitz egiteko, Liamek eta Galak materialak txukundu zituzten, eta Emmak eta Brunak ahotsa jaitsi zuten besteak entzun ahal izateko.

Clara irakasleak, nola elkarlanean ari ziren ikusita, irribarre egin zien: “Horixe da hobeto! Arauak errespetatzen ditugunean, gure gela leku eder eta harmoniatsu bihurtzen dugu”.

Egun hartatik aurrera, Liamek, Noak, Galak, Ainak, Marionak, Nilek, Emmak eta Brunak ahalegina egin zuten arauak gogoratzeko. Eta, batzuetan akatsak egiten bazituzten ere, bazekiten beti berriro has zitezkeela, elkarri lagunduz eta elkarrekin ikasiz.